

Eskerrik asko, Lendakari jauna, izentau egin nozulako zeure orde Amerikara juateko: alegiñak egin dodaz neure lana ondo betetako eta orain eta beti emen nago Euskaltzaindia eta geure euskerearen alde ekiteko. Biotzez besarkada sutsu bat.

C. de Uriarte.

BAYONAKO BATZARREAK

Bayona-ko Musée Basque-n batzarre batzuek izan dira eskoletako irakasbideez iru egunetan. Ain zuzen ere, aurrerapide aundiak egin dituzte, euskera eskoletan sartzeko legearen bidez, Bidasoaz gorako euskaldunak. Azkenengo egunean, arratsalde, Eppherre jaunaren Euskaltzaindian sartzea egin zan Euskaltzaindiak batzarre egiriko bat egini. Ona emen Euskaltzaindiaren agiria:

«Baionan, Musée Basque-n, 1959-VIII-29.

Eppherre jaunaren sarrera itzaldia.

Maipuruan egozan: buruzagiaren orde Dassance jauna, eta Oleaga, Gorostiaga, Lojendio, Lecuona, Villasante, Elissalde, Arrue, Irigaray, Michelena ta Lafitte jaunak.

Ainbat urgazle egozan entzuleen artean.

Oleaga jaunak emoten ditu arautegiaren zeaztasunak eta diño zelan bi euskaltzainiek ekarri bear daben euskaltzain barria. Irigaray ta Arrue joan dira dei egiten eta guztion aurrera dakarre. Dassance jaunak berba batzuk esan eta Eppherre jaunak egin dau itzaldia. Elissalde jaunak erantzun deutso. Arrue jaunak esan ditu azkeneko berba bizi batzuk. Eskuia emon jako euskaltzain barriari eta makilla bat eskeiñi.

An gengoan euskaltzain ta entzule guztiak ago batez «Gernikako Arbola» kantau dogu.»

BIZKAIKO BERTSOLARIEN BIGARREN SARIKETEIA

Uda osoan ekin da Bizkaiko Bertsolarien Bigarren Sariaketa egiten. Aurten Bizkaia bost zatitan partitu da eta toki bakoitzetik txapelkun bat atera da Bilboko azken txapelketa nagusirako. Valentin Enbeita igazko txapelkuna, libre gelditzen zan Bilborako. Txapelketak egin diran erriak auek dira. Urkiolan, San Antonietan, bagillaren 13-an. Bost bertsolarik parte artu zuten eta Jose Alberdi Mañarian bizi danak irabazi zuen. Mungian. San Pedro bezperan, bagillaren 28-an. Zazpi bertsolarik parte artu eta Juan Ormaeche Larrauri-koa txapelkun. Bermeon, San Pedroetan, bagillaren 29-an. Bost bertsolarik parte artu eta Deunoro Sarduy Muxikakoa txapelkun. Markiñan, Karmenetan, garrillaren 18-an. Zortzi bertsolarik parte artu eta Juan Azpillaga Ondarrun bizi dana txapelkun. Zeanurin, Andra Marietan, agustuaren 15-ean. Iruk parte